



AMEZKETAKO UDALA

FERNANDO AMEZKETARRA

MENDIKO

Zabala Egileor, Juan Ignazio. Mendikoko bertsolaria.

Paper zaharretan *El versista de Amezqueta* deitzen dio bere buruari. Bere izena ezaguna izan zen 1800 aldera bertsozaleen artean. *Mendiko* baserrian jaio zen 1774ko ekainaren 1ean. Bere gurasoak: Migel Ignazio Zabala eta Maria Mikaela Egileor. 1771eko irailaren 20an ezkondu eta seme-alaba hauek izan zituzten: Frantzisko Antonio: 1772-04-28; Juan Ignazio: 1774-06-01; Rafael Antonio: 1776-03-08; Maria Antonia: 1778-02-21; Pedro Ignazio: 1780-02-08; Domingo: 1782-04-24 eta Juan Ignazio: 1784-12-18. Bai, azken hau zen *Zabala gaztea* deituraz ezagutzen zen bertsolaria.

Oso gaztea zelarik, ezagutu zuen gartzelaren gogorra Juan Ignaziok. 1796an, anaia Frantzisko Antonio, *Sasturaingo* Bautista Iriarte eta Martin Basterrikarekin batera, gauez Bilbora zihoala Bergarako Bidakruzeta kalean detenitu zituzten, gaizkileak izan zitezkeelakoan. Hilabete batzuk egin behar izan zituen itzalean.

Hilabete horiek ez dira deus handik urte batzutara eman zuen espetxealdiaren ondoan. Izan ere, 1801eko ekainean lapurreta sonatu izan zen Gaintzako herrian, Martin Antonio Aldasoro eskribauaren etxean. Epailaren iritzian, laukote baten azioa izan zen lapurreta hura. Hauek osatzen zuten laukotea: Juan Ignazio Zabala Egileorrek, Beasaingo Domingo Kerejetak, Alegiako Joakin Zalakainek eta Juan Migel Berroetak.

Hala ere, zigorrik hestuen Zaldibiako Juan Ignazio Iztuetari ezarri zioten, lapurreta egin zutenen xaxatzaile bera izan zelako.

Zabala Mendikokoak hamar bat urte eman zituen Tolosako espetxean. Inoiz ihes ere egin zuen. Esate baterako, Arabako Zalduondora, mediku jakin baten bila.

Gure bertsolaria Josefa Antonia Otamendi Isasarekin ezkondu zen: 1797-02-27. *Loidi saletxe* izeneko eraikinean jarri ziren bizitzen. Lanbidez, hargina eta nekazaria zela aitortu zuen behin, epailearen aurrean. Hiru semeren guraso izan ziren Juan Ignazio eta Josefa Antonia: Pedro Migel (1797-11-30), Jose Maria (1801-01-13) eta Juan Lorentzo (1801-10-29).

Hauek lirateke bere biograffian azpimarratu beharreko puntuak. Hala ere, ez gara gauza izan noiz eta non hil zen argitzeko. Gauza bera gertatzen zaigu bere emazte Josefa Antonia Otamendirekin ere.



AMEZKETAKO UDALA



1801ko udazkenean espetxean sartu aurretik, izen handia zuen bertsozaleen artean. Izan ere, garai hartan izan zen bertso norgehiagokarik famatuena izan baitzuen Hernaniko Txabalategirekin Billabonako plazan. 4000 bertsozale baino gehiago bildu omen zen Billabonan. Epai-mahaikotza Aizarnazabalgo sakristauak, Tolosako Erretorea zen don Jose Mendizabalek eta Fernando Amezketarrak bete zuten. Hasiera batean, Juan Ignazio Zabalak Zaldibiako Juan Ignazio Iztueta aukeratu zuen zeregin horretarako. Iztuetak joaterik ez eta, Fernando Amezketarrak bete zuen zaldibiarrak utzitako hutsunea.

Oso saio ederra eskaini omen zuten Zabalak eta Txabalategik, eta irabazlerik ez izendatzea erabaki zuten aho batez epai-mahaikoek.

Hurrengo urtean, bi bitara neurtu ziren bertsolariak Tolosan. Juan Ignazio Zabala eta Fernando Amezketarra alde batetik: bestetik, Txabalategi eta Altamira. Bigarren neurketa honetan ere ez zen irabazlerik izan. Hori bai, luze aritu omen ziran, ilundu artean.

Amezketak eman duen bertsolari handienetakoa *Mendiko* honetan jaiotzen da.